

1.- EUSKARAZKO KAZETARITZAREN SORRERA ETA BILAKAERA GAUR EGUNERA ARTE

Euskarazko prentsaren sorrera eta garapena euskararen beraren garapenarekin lotuta dago. Beranta eta murrizta da euskararen presentzia agiri idatzietan historian zehar: aho-hizkuntza izan da euskara mendeetan zehar. Euskarazko prentsa ere oso beranta da. Hego Euskal Herrian, batez ere. Euskarazko prentsaren lehen urratsak hemeretzigarren mendearen erdi aldera eman ziren.

Ipar Euskal Herrian argitaratutako Eskualduna (1987-1944) da orain arte izan den euskara hutsezko aldizkaririk iraunkorrena. Eskualduna desagertu eta laster, Herria (1945) astekaria sortu zen, gaur egun oraindik ere argitaratzen delarik.

Hego Euskal Herriari dagokionez, 1920 eta 1936 bitartean oso garai onak bizi izan zituen euskarazko prentsak Euzkadi, Ekin, Nafarroako Zeruko Argia eta, batez ere. Donostiako Argia astekariarekin (1921-1936). Baina, Eguna (1937-1937) egunkariarekin jo zuen gaina Gerra Zibilaren aurreko euskarazko prentsak. Espainiako Gerra Zibilaren ondoren, frankismoaren garaipen armatuak goitik behera itzulipurdikatu zuen Hego Euskal Herriko komunikabide informatiboen egoera. Euskara desagertu egin zen prentsatik. Bai eta gainontzeko komunikabideetatik ere. Euskal ortografiarik edo pertsonaizenik ere ez zen onartzen. 1962ra arte ez zen euskarazko artikulurik onartu egunkarietan. Euskarazko egunkaririk ezean, euskal prentsa idatzia astekarietan egiten zen: Donostiako Zeruko Argia (1963) astekaria -



1980an berriro eta Argia izena hartuko zuena- Bilboko Anaitasuna hamaboskaria, Donostiako Goiz-Argi (1974) astekaria eta Yakin dira frankismoaren bukaerako euskarazko argitalpenik garrantzitsuenak. Hauek guztiok izan ziren euskal kazetarien eskola-lantegiak. Aldizkarigintza izan da nagusi euskarazko prentsaren historia laburrean eta, aldi berean, aldizkari guztiok urteetan eginiko lana funtsezkoa gertatu da gaur egungo euskarazko argitalpenen eta egunkariaren -hau da, Euskaldun Egunkariaren- sorreran.

Aipatu beharrekoak dira prentsa elebiduna sortzeko egindako saioak. Izan ere, laurogeigarren hamarkadan hainbat egunkari eta aldizkari elebidun sortu zen, euskara gero eta gehiago erabiltzeko asmotan. Deia eta Egin dira garai horretan jaio eta bizirik dirauen prentsa elebidunaren argitalpen bakarrak. Biotan ere -gainontzeko komunikabide elebidunetan bezalatsu- euskararen erabilerak atzera egin du, la sinbolikoa izateraino. Egunkari bi horiek euskara hutsez argitaratutako Eguna eta Hemen aste-gunkariak ere huts egin zuten.



2.- EUSKARAZKO PRENTSAREN EGUNGO EGITURA

Handia da Hego Euskal Herriaren prentsa-kontsumoa: Europako batezbestekoaren azpikoa, baina Espainiakoa baino handiagoa. Hego Euskal Herrian egunkarien hedapen eta irakurle-indizeak Frantzia eta Belgikakoen antzekoak dira eta Espainiakook halako bi. Ipar Euskal Herriari buruzko daturik ez dugu.

Hego Euskal Herrian euskarazko prentsak inoiz izan ez duen indarra eta zabalkundea lortu du azken urteotan. Hala ere, oraindik minoritarioa da erdarazkoaren aldean. Gaztea da euskarazko prentsa: gaur egungo argitalpenik gehienak azken hamar urteotan jaioko dira eta bertan ari diren profesionalak ere gazteak dira. Hauxe da euskarazko prentsaren egitura,

- Egunkariak. Euskarazko egunkari bakarra dugu: Euskaldunon Egunkaria. Bestalde, hamabost dira espainieraz bakarrik edo ia bakarrik Hego Euskal Herrian banatzen diren egunkariak. Hamar bat dira Ipar Euskal Herrian frantsesez bakarrik banatzen diren egunkariak.
- Informazio orokorreko aldizkariak. Argia astekaria da informazio orokorreko aldizkari bakarra, Euskal Herri osoan euskara hutsez banatzen dena. Asko dira Euskal Herri osoan erdera hutsez banatzen diren aldizkariak.





- Aldizkari berezituak. Laurogei bat dira euskarazko aldizkari berezituak: kultura, literatura, hizkuntzalaritza, soziolinguistika, zientzia eta teknika, erlijioa, itzulpengintza eta inlterpretaritza, irakaskuntza, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea edota komikia lantzen dute, besteak-beste. Ezin konta ahala dira Euskal Herrian banatzen diren erderazko aldizkari berezituak.
- Herri-prentsa. Berrogeita hamabi inguru dira euskara hutsez argitaratzen diren herri-aldizkariak, gehienak 1988tik hona sortutakoak. Espainierazko eta frantsesezko herri-aldizkarien kopurua ere handia da, datu zehatzik ez badugu ere.





3.- EUSKALDUNON EGUNKARIA

Gorago esan bezala euskarazko lehenengo egunkaria 1937an sortu zen Espainiako Gerra Zibilean eta urte berean desagertu Francoren armadak Bilbo hartu zuenean. Frankismoa amaitu bezain pronto, ordea, bai euskal kulturako mugimendu sozialek bai erakunde publikoek ere euskarazko egunkaria sortzeko premia azaldu zuten.

1986an Deia eta Egin egunkari elebidunek Eguna eta Hemen euskarazko astegunkariak sortu zituzten, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin, egunkari itxurarekin, noizpait egunkari bihurtzekotan. Esperientzia hauek, prentsa elebidunaren proiektuek bezala, huts egin zuten: argitaratu ziren bitartean 2.000 ale inguru saltzen zuen bakoitzak, datu zehatzik ez badago ere. Euskarazko egunkari publiko bat sortzeko 1900ean Eusko Jaurlaritzak egindako proiektuak ere huts egin zuen. Argia astekariaren esku-tik sortutako ekimenak, ordea, 1990eko abenduan kaleratu zen gaur egun dugun euskarazko egunkari bakarraren -Euskaldunon Egunkariaren- lehenengo zenbakia.

Euskaldunon Egunkariaren hedapenari buruz Espainiako Oficina de Justificación de la Difusión (OJD) erakundeak emandako datuen arabera., 11.560 ale saldu zituen egunkari horrek batezbeste 1994an (ikus I. taula) eta 12.188 ale 1995ean. irakurle kopuruari buruz, berriz, ez du erakunde horrek daturik ematen. Ez eta ale bakoitza zenbat lagunek irakurtzen duen ere.





1.taula: Euskaldunon Egunkariaren hedapena eta ezarpena 1994an

Lurraldea	Hedapena	Ezarpena (1) kopurua	Euskaldunen %	Euskaldunak
Araba	585 ale	38 ale	15.600	7
Bizkaia	3.952 ale	25 ale	158.400	17
Gipuzkoa	5.706 ale	23 ale	245.400	44
Iparraldea	467 ale	7 ale	69.100	33
Nafarroa	850 ale	21 ale	40.200	10
Guztira	11.560 ale	22 ale	528.700	22

Iturria ...: hedapenari buruzko datiak Oficina de Justificación de la Difusión (OJD) erakundeak emandakoak dira eta batezbeste saldutako aleak adierazten dute. Euskaldunen portzentaiari buruzko datuak, berriz, Xabier Aizpuruak Euskararen Jarraipena liburuan emandakoak dira.

(1) Honela definitu dugu ezarpena: mila euskalduneko saldutako aleak.

Euskaldunon Egunkariaren hedapen eta ezarpen geografikoari buruz ondorio hauek ateratzen dira, goiko taulako datuen arabera:

- Lurralde euskaldunenetan du hedapenik handiena Euskaldunon Egunkariak, Gipuzkoan eta Bizkaian egiten baitu salmenten % 85a.



- Lurralde erdaldunduenean -hau da, Araban- du, ordea, ezarpenik handiena Euskaldunon Egunkariak.
- Iparraldean, berriz, oso txikia da Euskaldunon Egunkariaren ezarpena, ia sinbolikoa dela esan daiteke.

Euskaldunon Egunkariaren irakurle-kopuruari buruz ere badugu daturik, Estudios de Opinión y de Mercado (ICIES) enpresak Euskal Autonomi Erkidego (EAE) eta Nafarroako komunikabideetako audi-entziari buruz urtero egiten dituen ikerketatik ateratakoak. Euskaldunon Egunkaria bera, ordea, ez dago ados datu horiekin, CIESen inkestak komunikabide txikiak penalizatzen dituelakoan. 1991n 27.000 irakurle zituen bitartean 1995ean 17.000 irakurle zituen Euskaldunon Egunkariak, CIESek egindako inkesten arabera. 32.000 inguru dira Euskaldunon Egunkariaren irakurle finakoak 20-39 urte bitarteko euskaldunen artean, Euskaldunon alfabetatze maila eta euskarazko kultur kontsumoari buruz Siadecok 1996an egindako inkesten arabera.

Handia da Euskaldunon Egunkariaren autofinantziatzeko maila eta, gainera. azken urteotan hobera egun du: 1994an erakunde publikoetatik jasotako dirulaguntzak bere baliabideen % 22 izan ziren bitartean 1996an % 14,6 izan dira.

Langile-kopuruari dagokionez. Euskaldunon Egunkaria da euskarazko prentsan enpresarik handiena. 1990ean 68 langilerekin hasi bazen ere, gaur egun 103 langile dituen expresia da. Horietako gehienak - 59 hain zuzen- kazetariak dira.



4.- ARGIA INFORMAZIO OROKORREKO ASTEKARIA

Euskarazko aldizkariak Euskal kazetaritzaren urtea izendatu zuten 1976a. Garai hartan Zeruko Argia eta Anaitasuna ziren, Jakin eta Herriarekin batera, argitalpenik garrantzitsuenak. 1980an Anaitasuna desagertu eta Zeruko Argiatik Argia aldizkaria sortu zen. Geroztik Argia astekaria da euskaraz argitaratzen den informazio orokorreko aldizkari bakarra.

Profesionalizazioa eta produktuaren kalitatea hobetzeko ahalegin handiak egin ditu Argiak. 1976an magazine itxura hartu zuenetik hona etengabe eraldatuz joan da Argia. Edukiz aberastuta eta osorik koloretan inprimatuz bere estetika modernotuta, aro berri bati ekitera doa 1997an. Bestalde, urrats garrantzitsuak eman ditu urteotan: azpiegitura eta teknologiaz indartu, giza-ekipoa osatu eta sendotu, sare komertziala antolatu eta produktuak ugaritu eta hobetu.

Komunikabideen hedapena eta audientzia kontrolatzeko duten erakundeek ez dute Argiari buruzko daturik ematen. Aldizkari horri buruzko datu bakarrak Argiak berak emandakoak dira eta beraiek kontrajarriak dira. Izan ere, 4.200 eta 12.000 bitarteko kopuruak ematen baitituzte Argiaren iturri ezberdinek.



Euskaltzale eta kulturzalea da Argiaren irakurlea, Euskal Herri mailako gainontzeko argitalpen gehienak bezala. Eta hori ez da kasualitatea. Izan ere, Argiak lantzen dituen gaiengatik eta gai horiei ematen dien tratamenduagatik ez da dibulgazioko aldizkaria. Argiak egiten duen produktua ez da publiko zabal batengana iristeko modukoa.

Aspaldi honetan publizitateari euskarri berriak bilatzen lan handia egin du Argiak. Gehigarri monografikoak dira euskarri berritan agian emankorrenak. Hala ere, enpresa handien publizitatea lortzeko zailtasunak ditu. Izan ere, enpresa handien publizitatea erakartzeko hedapen txikiegia baitu Argiak. Zenbakiko 4.500 ale saldu partez, 20.000-25.000 aletik gora saldu beharko luke lehiakorra izateko.

Argiaren autofinantziazio maila % 82,5ekoa ingurukoa da, aldizkarlak berak emandako datuen arabera. Pertsonalari dagokionez, berriz, 16 lagunek osatzen dute Argiaren plantila. Horietatik 5 baino ez dira kazetariak.





5.- ALDIZKARI BEREZITUAK

Kopuruz ugariak dira euskarazko aldizkari berezituak. Euskarazko prentsa motarik ugariena. Laurogeitik gora dira euskarazko aldizkari berezituak. Aspaldiko hamar urteotan sortuak dira gehienak.

Maiztasun txikikoak dira euskarazko aldizkari berezituak. Aldizkari mota honetan ez da batere astekaririk. Bada, ordea, hamaboskari bat: Aizu!. Badira hilabetekari bakar batzuk ere: sei, guztira. Gainontzekoak maiztasun txikikoak dira edo ez dute arautua maiztasuna.

Tirada, hedapen eta ezarpen txikikoak dira mota honetako aldizkari gehienak. Gutxi batzuk baino ez dira 2.000 aleko tirada gainditzen dutenak.

Euskaltzale eta kulturzalea da aldizkari hauen irakurlea, Euskal Herri mailako gainontzeko argitalpen gehienena bezala. Euskalgintzako profesionalak -euskaltegietako irakasleak. Ikastetxe eta institutuetao irakasleak, itzultzaileak. administrazioko euskara teknikariak- dira aldizkari hauen irakurleak. Beste asko, berriz, euskara ikasten ari dira edo haurrak dira. Gehienbatean, harpidetza bidez banatzen dira. Kiosko eta liburudendetan berriz, apenas ez dira saltzen.

Aldizkari mota honek ez du publizitatearen munduan sarbiderik lortu. Oso tirada txikikoak dira publizitatea erakartzeko. Hortaz, bada, harpidetza eta dirulaguntzetatik bizi dira hauetako aldizkari gehienak.





6.- HERRI-ALDIZKARIAK

Euskarazko herri-aldizkariak garrantzi handia lortu dute azken urteotan, Arrasate Pressen eskutik lortu ere. 1988 aurretik euskarazko herri-prentsarik apenas bazegoen ere, Arrasate Press kaleratu eta berehala izan zituen jarraitzaileak. Denetara berrogeita hamabi dira gaur egun euskaraz argitaratzen diren herri-aldizkariak. Baina herri-prentsaren loratzea Mendebalde osoan ematen ari den fenomeno da.

Aspaldiko zortzi urteotan sortutako herri-aldizkari gehienak euskara hutsez argitaratzen dira. Zonalde euskaldunetan gertatu da batik bat, euskarazko herri-prentsaren hedapena, euskara oraindik indartsu dagoen herrialdeetan, alegia. Araban eta Iparraldean indar gutxi dute herri-aldizkariak. Nafarroako alde euskaldunetan, berriz, indartsua da herri-prentsa ([Ikus 2. koadroa](#)).



2. taula: euskarazko herri-prentsaren hedapena lurraldeka 1996an

<u>Herrialdea</u>	<u>Aldizkariak</u>	<u>Euskaldunak</u>
Araba	2	7
Bizkaia	12	17
Gilpuzkoa	31	44
Iparraldea	2	33
Nafarroa	5	10
Guztira	52	22

Iturria .: Jose Felix Diaz de Tuestak osatutako artxiboko datuak. Euskaldunen portzentaiati buruzko datuak, berriz, Xabier Aizpuruak Euskararen Jarraipena liburuan emandakoak dira.

Maiztasun handikoak dira euskarazko herri-aldizkari gehienak. Izan ere, gaur egun argitaratzen diren berrogeita hamabi aldizkarietatik hogeita hamazortzi astekariak, hamaboskariak edo hilabetekariak dira. Gainera, beraiek dira tiradarik handiena dutenak (ikus 3. koadroa).



3. taula: euskarazko herri-prentsa maiztasun eta tiradaren arabera 1996an

Maiztasuna	Tirada	Aldizkariak
Astekariak	35.650 ale	8
Hamaboskariak	24.500 ale	7
Hilabetekariak	53.700 ale	23
Beste batzuk	1.500 ale	14
Guztira	125.350 ale	52

Iturria ...: aldizkariak eurek emandako datuak, Jose Felix Diaz de Tuestak landutakoak

Euskarazko herri-adizkariaren hedapen eta zabalkundeari buruz egindako ikerketen arabera, aldizkariok argitaratzen duten ale bakoitza hiru-lau lagunek irakurtzen dute. Hortaz, bada, euskarazko herri-prentsak zenbakiko kaleratzen dituen 125.350 aleak 375.000 lagun inguruk irakurtzen dituzte: bi euskaldunetik batek irakurtzen du euskarazko herri-prentsa, alegia. Euskarak inoiz lortu duen irakurle-kopururik handiena. Zein da, baina, euskarazko herri-prentsak halako irakurle-kopurua izatearen arrazoia? Albisteen hurbiltasuna da -mundu osoko prentsa hurbila (prentsa erregional, eskualde-prentsa eta herri-prentsa) aztertu duten Ikertzaileen iritziz- haren arrakastaren arrazoirik nagusia (Irigoi, 1993).



Bestalde, tokian tokiko informazio-hutsunea euskarazko herri-prentsak bete izanak -euskarazko prentsak erdal prentsari aurrea hartu izanak, hain zuzen- oztopatu du, kasu askotan, herri-aldizkari asko erderaz argitaratzea.



7.- EUSKARAZKO PRENTSAREN INDARGUNE ETA AHULEZIAK

Oso desberdina da merkatuan euskarazko prentsako produktuek eta enpresek duten indarra eta lehiakortasuna. Lau adierazle erabiliko ditugu produktu horien indargune eta ahuleziak aztertzeko: alde batetik, produktu bakoitzaren merkatuaren ezaugarriak eta egitura; bestetik, produktuak egiteko erabiltzen diren baliabideak; produktuen egokitasuna eta ahalmena, mekatuko beharrei aurre egiteko; eta, azkenik. galerarik izan gabe merkatuan lehiatzeko produktuek duten ahalmena.

Oso hazi da azken urteotan euskarazko prentsaren merkatua Euskal Herrian. Euskarazko prentsak inoiz izan ez duen indarra eta hedapena lortu ditu: sekula baino argitalpen, kazetari, baliabide eta irakurle gehiago ditu. Erdal prentsa ere inoiz baino sendoagoa da Euskal Herrian. Irakaskuntzan B eta D ereduak A ereduari gailendu zaizkion bezala, euskarazko prentsa ez da sartu erdal prentsa ordezkatzeko bidean.

Oso merkatu zail eta borrokatua da Euskal Herriko prentsarena. Eguneroko prentsarena, batez ere: inertziak eta etxeke ohiturak bultzatzen gaitu egunkari hau edo beste irakurtzera. Horrexegatik, zaila da oso egunkariz aldatzea eta hori da Euskaldunon Egunkariaren arazo handienetariko bat. Bestalde, euskarazko irrati-telebistek ez bezala. euskarazko prentsak ez du euskaldungoa irabazi eta erakartzerik lortu: merkatu potentzialaren zati txiki bat baino ez du bereganatu. Euskaltzale eta ikasia da. gehienbategian, Euskal Herri mailako euskarazko prentsaren irakurlea. Herri-prentsa da irakurlego zabal baten-



gana iristen den bakarra. Tokian tokiko aldizkariak lider izaten dira merkatuan, bakoitza bere eremuan, noski. Tipi-ttapa hamaboskaria, adibidez, bere eremuko familien % 84rengana iristen da. Bada salbuepenik, ordea: Irutxulo aldizkaria Donostiako familien % 10era baino ez da iristen.

Baliabide urriak ditu, oro har, euskarazko prentsak. Euskaldunon Egunkaria eta Argia dira baliabideen urritasuna gehien nozitzen dutenak. Batez ere, beren lehiakideek erdal egunkariak eta informazio orokorreko erdal aldizkariak dituzten baliabideak askoz ugariagoak direlako. Herri-prentsan ez dago bat ere alderik euskarazko eta erdarazko prentsaren artean. Are gehiago, hainbat kasutan, ugariagoak izaten dira euskarazko prentsaren baliabideak erdarazkoarenak baino.

Produktuei dagokienez, begi bistakoa da Euskaldunon Egunkaria eta Argiaren gabeziak erdarazko argitalpenen aldirian, arlo hauetan, besteak beste: orrialde-kopurua, kolorearen erabilera, grafismoak eta infografismoak duten lekua, albiste lokalen tratamendua eta tokian tokiko edizioak. Euskarari eta euskal kulturari ematen zaien lekua eta tratamendua dira, beharbada, Euskaldunon Egunkariak eta Argiak duten abantaila bakarra. Euskaltzaleentzat egindako produktuak dira biak ere eta merkatuko segmento horretan liderrak dira. Euskarazko aldizkari berezituak -denak ez badira ere, gehienak euskararen profesional edo Ikasleentzat egindako produktuak dira. Bestelakoak dira lierri-aldizkariak egiten dituzten produktuak: irakurlego zabal batengana iristeko diseinatuta daude eta, gainera.. liderrak dira beren esparruan.



Merkatuko legeen arabera. euskarazko prentsarenak- egin du. Euskarazko prentsa, oro har, defizitarioa da. Euskaldunon Egunkaria eta Argia dira, seguru asko, autofinantziazio mailarik altuena dutenak eta, beraz, administrazioaren dirulaguntzen menpekotasunik txikiena dutenak. Herri-aldizkariak, berriz, oro har, askoz ere autofinantziazio maila txikiagoa dute. Ez da harrizkeoa, beraz, euskarazko prentsa egiten duten taldeak/enpresak ekimen pribatu lukratiboaren arlokoak ez izatea.





8.- PROPOSAMENAK.

Euskal Herriko giro politikoak guztiz baldintzatzen du euskarazko prentsa eta haren bideragarritasuna, Euskaldunon Egunkaria eta Argiarena, batez ere. Polarizazio politikoak oso eragin negatiboa du euskarazko prentsaren garapenean.

Debeku politikoez oraintsu arte jarritako oztopoak gaindituak ditu euskarazko prentsak. Teknologiak ere erretu egin du euskarazko argitalpen eta produktu berriak sortzea. Teknologia berriei esker inoiz baino aukera gehiago dago prentsa euskaraz egiteko. Gero eta errezago da mikroaudientzentzat prentsa egitea eta zabaltzea. Baina, aldi beretan, gero eta eskaintza gehiago jasotzen dute hizkuntza txikiak hiztunek, gehienak bereak ez diren hizkuntzetan. Aurrerakuntza teknologikoez urte gutxian komunikatzeko eskaintza berriak jarriko dituzte euskaldunen esku. Hori dela eta, datozen hamarraldietan murriztu egingo da gaur egungo euskarazko prentsaren eskaintzaren proportzioa. Merkatuko legeek jarritako oztopoak gainditzea da euskarazko prentsaren etorkizuneko erronka. Etorkizuneko euskarazko prentsak jokaera enpresarial egokia izan beharko du: audientziak nahi dituen moduko produktuak diseinatu, egin eta banatzea,, finantziabideak bilatzea eta kudeaketa eraginkorra izatea.



Prentsaren gaitzak ez dituzte dirulaguntzek sendatuko. Euskarazko prentsaren gaitza ez da diru falta, produktu egokien falta baizik. Hala ere, ona litzateke diru eta baliabide ugariagoak izango balitu. Ezinezkoa da publiko minoritario batentzat euskaltzale, ikasi eta kulturzaleentzat- egindako produktuekin publiko zabal batengana iristea. Produktuak dibertsifikatu beharra dago eta merkatuan lehiatzeko moduko produktuak bilatu baino beste erremediorik ez dago.

Txikia izatearen abantailak alde batera utzi gabe, elkarlana bultzatu beharko du euskarazko prentsak, baliabideak optimizatu, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini ahal izateko. Hain bizkorra izango da datozen urteotan komunikabideen bilakaera, ezen euskarazko prentsak etengabeko ahaleginak egin beharko baititu atzean ez gelditzeko.

Komunikazioaren aroa bizi dugu. Etorkizunean herri baten garapen maila bere baliabide informatiboaren arabera neurtuko da. Komunikabideen garrantzia, beraz, gero eta handiagoa izango da datozen urteotan. Prentsarena ere bai, noski. Euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren sektore estrategikotzat jo ala ez erabaki beharko du Administrazioak. Bai eta euskarazko prentsak sektore horretan zer paper jokatu behar duen ere. Beste arlo batzuetan -administrazioaren euskalduntzea, irakaskuntza edota helduen euskalduntze eta alfabetatzean, alegia- egin duen bezala euskarazko prentsaren alorrean aplikatuko duen politika erabaki beharko du administrazioak. Hortaz, bada, ona litzateke administrazioak erabakiko balu zein nolako prentsa-eredua bultzatu eta indartu nahi duen eta. Ondorioz, lehentasunezko arloak definitu, prentsa sustatzeko neurriak o





BIBLIOGRAFIA

Agirreazaldegia, A. *Euskarazko herri-aldizkari bat zure herrirako*. In Herri-Komunikabideel buruzko 11. Jardunaldiak. ARKO kultur elkarteak. Arrasate, 1993.

Aizpurua, Xabier (1995). *Euskararen Jarraipena*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gastelz, 1995.

Aranzabal, J. *Herri-aldizkari baten taxuketa*. In Jakin, 69. zenbakia. Donostia, 1992.

Aranzabal, J. *Euskarazko Herri Prentsa*. "Kazetaritza-mintegia". Leioa, 1995. Argitaratu gabeko txostena.

Argia. *Argia biziagoa.- XXI. mendeari ekiteko astekaria*. Lasarte-Oria. 1996. 1997an argitaratzeko den Argia berrituaren berri emateko asmoz erakunde publikoetara bidalitako txostena.

Argia. Dirulaguntza-eskabidea. Lasarte-Oria. 1996. 1996ko dirulaguntza-eskabidea, Argiak udaletara bidalitakoa.



Atxaga, M. *Euskal Kazetariaren arazoak*. In Euskal kazetarien jardunaldiak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1991.

Coca, C., eta Martínez, F. *Los medios de comunicación en el País Vasco*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1993.

Cheval, J.J. *Los medios de comunicación social en Aquitania*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1993.

Diaz de Tuesta, J.F. *Prentsa lokala eta publizitate lokala*. In Publizkuntza. Publizitatea eta hizkuntza ez normalizatuari buruzko Nazioarteko I. Kongresuaren agiriak. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskal Kulturaren Batzarra. Leioa, 1992.

Diaz de Tuesta, J.F. *Herri-komunikabideen ekarpena hizkuntza-normalizazioan* (Translation In English) "XIV. Uda Ikastaroak. J2 ikastaroa: Euskara biziberritzeko saioak." Donostia, 1995.

Etxezaharreta, L. *Herriaren kazela. 50 bete ditu Herria aldizkariak*. In Argia, 1.505 zenbakia. Donostia, 1994.

Hegi, T. *Herriaren kazeta. 50 bete ditu Herria aldizkariak*. In Argia. 1.505 zenbakia. Lasarte-Oria, 1994.



Intxausti, J. *Euskal Herriko Historiaz III*. In Eliztarrak eta euskal kultura. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1986.

Intxausti, J. *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1990.

Irigoien, J.M. *Ttipi-ttapa*. In Jakin, 69. zenbakia. Donostia, 1992.

Irigoien, J.M.. *Herri-Aldizkarien Ezarpena eta Zabalpena.- Arrasate Press, Berrigara eta Ttipi-ttapa*. In Herri-Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak. ARKO kultur elkarte. Arrasate, 1993.

Maciá Mercadé, J. *Prensa comarcal-regional (1). Paradojas de, la prensa comarcal-regional. Una prensa con poca prensa y mucho futuro*. In Anuncios, 18~25 enero. Madrid, 1987.

Maciá Mercadé, J. *Prensa comarcal-regional (2). Prensa comarcal-regional, la modalidad decana. Del siglo X-VIII al XXI, cada vez con más potencialidad*. In Anuncios, 26 enero- 1 febrero. Madrid. 1987.

Maciá Mercadé, J. *Prensa comarcal-regional (3). El futuro de la prensa comarcal-regional es óptimo. La fuerza creciente de la noticia local*. Anuncios, 26 enero- 1 febrero. Madrid, 1987.





Maciá Mercadé, J. *Prensa comarcal-regional (4). La prensa regional-comarcal cara al siglo,XXI Su gran aliado: el microchip*. In Anuncios, 9-15 febrero. Madrid, 1987.

Maciá Mercadé, J. *La Comunicación regional y local*. Editorial Ciencia 3 Distribución, S.A. Madrid, 1995.

Mendiguren, I. *Arrasate Pres*,Y. In Jakin. 69. zenbakia. Donostia, 1992.

Morgaine, D. *Diez años para sobrevivir*. El diario de masas de 1980. Ed. Nacional. Madrid. 1972 (Bigarren argitalpena).

Narbaiza, A. *Herrietako aldizkariak eta beste*. In Zehar. Donostia, 1977.

Nieto, A. *La empresa periodística en España*. EUNSA. Pamplona, 1973.

Orive. P. *Comunicación y sociedad democrática*. Madrid, 1978

Otamendi. M., eta Uria, L. *Euskal prentsak ez du inoiz maila hau izan*. In Euskaldunon Egunkariaren Urtekaria. Andoain, 1995



Plazaola, E. eta beste batzuk. *Euskal prentsa lokalaren problematika*. In Jakin, 69. zenbakia. Donostia, 1992.

Ramirez, T. *Komunikazioaren norabidc, berriak diktaduraren ostean 1975-1995*. In Jakin, 89. zenbakia. Donostia, 1995.

Salaburu, P. *Distirarik gabeko eredua*. In Arrasate Press, 100. zenbakia. Arrasate, 1991.

Sarasola, I. *El Dificil camino de la normalización de la lengua vasca*. In *Lenguas de España Lenguas de Europa*. Fundación Cánovas del Castillo. Madrid, 1993.

Sarasua, J. *Euskarazko prentsaren diagnostikoa*. In Jakin, 96. zenbakia. Donostia, 1996.

Thomas, N. *Publishing, the medias and artistic creation* (and translation). "Linguapax International Seminar". Leioa, martxoaren 11 - 15, 1996.

Torrealdai, J.M. *Euskal Telebista eta Euskara*. Elkar. Donostia, 1985.

Torrealdai, J.M. *ETB eta euskara*. In Jakin, 75. zenbakia. Donostia, 1993.

Torrealdai, J.M. *Hizkuntza aldizkarietan*. In Jakin, 82. zenbakia. Donostia, 1994.





Torrealdai, J.M. *Herriaren kazeta. 50 bete ditu Herria aldizkariak*. In Argia, 1.505. zenbakia. Donostia, 1994.

Torrealdai, J.M. *Gune bateratzaile, indar eragile*. In Euskaldunon Egunkariaren Urtekaria. Andoain, 1995.

Uria, I. *Euskal prentsa sortzen*. In Jakin, 89. zenbakia. Donostia, 1995.

Zalakain, J.M..Joxemiren uzla. *Euskal prentsa herri proiektua da*. Txalaparta. Tafalla,1993.

Zalakain, J.M. *Prentsa nazionala eta prentsa lokala*. In Uztaro, 12. zenbakia. Udako Euskal Uinbertsitatea. Bilbo, 1994.

Zalbide, M. *Euskal kultura*. In Jakin. 73. zenbakia. Donostia, 1993.

Zallo. R. eta beste batzuk. *Industrias y Políticas culturales en España y País Vasco*. Euskal Herriko Argitarapen Zerbitzua. Leioa. 1995.

Zarraoa, I. Z. *Komunikabideak eta teknologia berriak* (Translation in English). "Linguapax International Seminar". Leioa, martxoaren 11 - 15, 1996.



Zubiria, P. *Salmenta kopuruz neurtzen ez den eragina du Egunkariak*. In Euskaldunon Egunkaria. Urtekaria, 1991-12-6. Donostia, 1991.

